

2.gaila POLITIKA: ORDENA ETA BOTERE POLITIKOA

1. POLITIKA

Zer da politika?

Definizio asko.

Zientzia:

Zientziaren oinarria, ikerketa prozesu batean baldintza batzuk betetzean datzana.

- Ikerlariak gai bat zehazki definitzen du, ikertzeko metodo bat du, eta horretarako hainbat tresna baliatzen ditu. Azkenik, ondorio batzuk atera eta publikatu egiten ditu.

Grezia klasikoan, politika: hiriari (polisa) zegozkion gai guztiek osatzen zuten.

Zientzia gizartearen produktu bat da, horregatik daude ikuspegi ezberdinak.

1.1. DEFINIZIORAKO PROPOSAMEN BAT

- Komunitatea
- Boterea
- Erakundeak eta arauak
- Legitimazioa
- Erabakiak
- Beharkizuna
- Ordena
- Eragileak
- Ezberdintasuna
- Interesak
- Gatazkak
- Errekurtsoak

a) Proposamena

Politikaren helburuetako bat gizartean *orden* bat ezartzea da. Bertan parte hartze dute:

erakundeek + gizarte zibilak

Boterea harreman mota berezi bat da, zeinak hainbat tresna eta *bitarteko* baliatuta beste norbaiten portaerengan eragina izatea duen helburutzat. Tresna horiek gizartean diren egiturak dira:

- o Ondasun material eta zerbitzuak

- Legitimitatea: diskurtso bidez sortzen dena
- Bortxa

Horrela, *politika* gizarte batean *ordena* ezartzeko *bitarteko* bat da. Gizarteak ezberdin eta desorekatuak dira, eta bertako *instituzio* eta *gizarte zibila* dira ordena ezartzeko *tresnak*. Ordena ezartzeko menerapen egiturak (ondasunak, legitimitatea eta bortxa).

- Helburua: gizartean diren gatazkak kudeatzea
 - Gatazka horiek ezberdintasun eta desoreken ondorio dira
- Eraitza: gizartean ordena ezartzea
- Tresna: erabaki publikoak

Horrela, politika existitzen da gatazka existitzen delako.

Gatazka → bitartekoak → kudeaketa → erabaki publikoak → ordena

b) Boterea eta estatuaren artean

Politika definitzeko politika ikertu behar da; eta ikertu ahal izateko, ikertzeari bide eman behar zaio. Gainera, politika aztertzen hasiko diren pertsona horiek aurreko egoerara ez itzultzeko joera izango dutenez, politika bi kontzeptu bidez defini daiteke.

Politika azken mendean bi kontzeptu hauen bidez definitu da. (Gerora testuinguruarekin erlazioa).

- **Estatura:** instituzio edo erakundea. Horrela, tresna honen bidez definitu dute politika hainbat pentsalarik. Tradizio hau europar kontinentala da (Frantzia eta Alemania adibide).
 - Carl Schmitt: *Politika lagunen eta etsaien arteko harremanaren alorra da*. Zuzenbidez ari da definizio hau.

Zergatik baliatu da *estatura* Alemania eta Frantzian *politika* definitzeko? Herrialde horietan, eta orokorrean, egoera absolutistak gehien iraun zuen herrialdeetan (edo interes politiko, filosofiko hori zutenetan) politikaren azterketa estatuaren osatzeaz oinarritu da; hots, zuzenbide-estatuaren eraketan, absolutismoaren aurka.

Zuzenbide estatuak honakoari egiten dio erreferentzia: arau batzuk daude eta arau horiek denok arautzen gaituzte. “Ordezkatze sistema” edo “demokrazia” bidez egiten dira. Absolutismoaren aurkako agerpen politikoa da.

Horrela, Frantzia eta Alemanian absolutismoaz izandako esperientziaren aurka egiten du; eta politika instituzioarekin lotu da.

- **Boterea:** Ikuspegi enpiriko eta praktikoa. Herrialde anglosaxoietan baliatu zen (Erresuma Batuan edo Estatu Batuetan).
 - o Laswell: *Politika nork, zer, noiz eta nola lortzen duenaz jarduten da.*
 - o Humeren utilitarismoa: natur zientzien ereduak gizarte zientzietara aplikatu

Zergatik baliatu da *boterea* Erresuma Batuan eta AEBn *politika* definitzeko?

Herrialde hauetan lehenago desagertzen da herrialde hauetan. Horren ondorioz, bertako ikerketa ez da absolutismoaren aurkako tresna gisa abiatzen; praktika politikotik baizik.

Adibidez, Erresuma Batuan parlamentarismoa indartzen hasi zen XVII.mendean.

Egoera horretan, zeinetan ikerketa politikoa modernoa bilakatzen hasten den, ez zaie antzinako egitura politikoei erreparatu behar. Egin behar denari erreparatzen zaio ikuspegi pragmatiko edo utilitarista batekin.

Ikuspegi honek bat egiten du liberalismo politikoarekin eta nagusitu egiten dira hainbat arlo zein sektoretan. Era berean, enpirismoarekin ere erlazionatu daiteke, zeina esperientziarekin erlazionatzen baiten.

c) Zenbait definizio klasiko

(Hurrengoak ez dira ikasi behar)

Carl Schmitt: politika lagunen eta etsaien arteko harremanaren alorra da. Alemaniara, 1920 ingurukoa, ikuspegi naziaren sortzaileetako bat.

Lasswell: politikak nork, zer, noiz eta nola lortzen duen jarduten du.


Weber: Elkartze politikoa (komunitate politikoa) menerapen (dominazio) elkartzea da baldin eta **administrazio erakunde** baten bidez lurralde bateko biztanleriarengandik **obedientzia** lortzen bada eta biztanleria horren gaineko **kontrola** bermatzen bada, menerapen elkartzea eta biztanleriaren arteko harremana **zuzena** eta **unibokoa** izaki eta **indarkeria legitimoaren errekurtsioan** oinarriturik.

- Administrazio erakunde, lurralde bateko biztanleria → Garai horretan ez zegoelako estatu formako erakunde politikorik.

- Obedientzia eta kontrola → legitimazioarekin lotuko genuke, legitimazioak onarpena dakar eta onarpenak obedientzia.
- Zuzena, unibokoa → norabide bakarrekoa.
- Indarkeria legitimoaren errekurtsioan → obeditu ezean indarkeria. Hausnartu: kode penala indarkeria da? Multa bat indarkeria da? Bai, baina legitimatuta dago, onarpen soziala du, alegia.

1.2. SISTEMA POLITIKOA, POLITIKAREN DIMENTSIONAK:

Sistema politiko bat aztertzerakoan hiru dimentsio edo une bereiz ditzakegu:



Politikaren hiru dimentsio horiek testuinguru batean kokatze dira. Testuingurua eta gatazkak:

- Ekonomikoak
- Kulturalak
- Erlijiosoak
- Nazioartekoak

- Generokoak

Kontzeptu honen garrantzia:

1. Politika eta testuinguruaren erlazioa azpimarratzen du
2. Politika gatazka edo tentsioaren ondorio dela azpimarratzen da
3. Kontzeptu honek orden logiko bat ematen dio politikari
4. Izaera dinamikoa ematen dio politikari, berrelikadura sistema gisa. Horrez gain ez da sistema itxia, gatazkak mota askotakoak izan daitezkeelako (lehen zerrendatutakoak)
5. Edozein garaitako politika sistemari aplikatu dakioken kontzeptua da.

2. GIZARTE ORDENA / ORDENA POLITIKOA

2.1. GIZARTEA ETA POLITIKA

Zein harreman dago politika eta beste gizarte esparruen artean?

Adibidez, zerk agintzen du, politikak edo ekonomiak?

Ondoriozko galdera:

Politika → *independentea da edo mendekoa da?*

Adibidez marxismoaren ikuspuntutik ekonomia da oinarria, politika ez da independentea.

Ordea, planteamendu horiek egin ahal izateko beharrezkoa da testuinguruan politika nola ulertzen den jakitea.

Errepaso historikoa:

Izan ere, historiaren une ezberdinetan hainbat eratarik ulertu da politika.

- *Aristotelesen Politika*
 - o *I.L: gizarte zibila, esklabutza, jabezia, botere etxetiarra → etxearen adibidea jabea, jabearen emaztea eta abar.*
 - o *II.L: aurreko teoriaren eta konstituzio nagusien azterketa.*

- III.L: *estatuaz eta hiritarraz, gobernuen eta subiranotasunaren teoria, erregetzaz.*
- IV.L: *Hiri perfektuaren teoria orokorra*
- V.L: *Hezkuntza, gimnastika, musika*
- VI.L: *demokraziaz eta oligarkiaz, hiru botereetaz*
- VII.L: *Boterearen antolaketa demokrazian eta oligarkian*
- VIII.L: *Iraultzei buruzko teoria orokorra*

Hau ikusita esan genezake Aristotelentzat politikak gizarte osoa hartzen zuela baitan, dena zen polisaren gaia, dena zen erabaki publikoaren mendekoa.

- Hiritarra = animalia politiko → zoon politikon
- Gainontzekoak = gizaki ez osoa, zerbait falta zuena. Hiritar osoa izatea zuen falta → zoon idioton

Hauen ustez, horrela, gizartea fenomeno politiko zen. Gizartea beharrean, polisa zen. Eta, esan bezalaxe, gizarte zibila hiriaren gobernuan parte hartzen duena da.

Hori aldatu egin da.

Polisa

Gizartea = politika



Murrizketa bat jasan du hainbat arrazoiengatik

Politika eta gizartearen arteko erlazioaren murrizketa

- 1) Kristautasuna: honek bereizketa bat egiten du eta bereizi egiten du politikatik at mantendu nahi duen esparru bat. Erlijioa, alegia. *Jainkoari berea eta Zesarri dagokiona*. Dagoeneko botere erlijiosoak ez dago botere politikoaren mende.
- 2) Kapitalismoaren sorrera: merkatua politikaren esparrutik kanpo uzten du. Honekin politikari eremu publikoa soilik dagokio (merkatua eremu pribatuaren baitan kokatzen da).

Independentea / mendekoa

Zein harreman dago politika esparrua eta gainontzeko gizarte esparruen artean? *Bi erantzun*

- a) Politika *independentea* da: absolutismoaren legitimazioa
- b) Politika *mendekoa* da: gaur egungo kapitalismoan

2.2. GIZARTE ORDENA: BORTXA, KONTZENTZUA eta INTERESA

Hiru baliabideren bidez ezartzen da ordena

- *Bortxa*: ordena indarkeriaren emaitza da
 - Machiavelli
 - Hobbes
 - Marx
 - Freud
 - Adibidez, tabuen bidez; kulturak zehazten duelako zer onartzen dugun eta zer ez.
- *Kontzentzua*: ordena adostasunaren emaitza da; legitimazioaren bidez (zuzenbidea, kode penalaren adibidea)
 - Parsons
 - Gizarte batek balio batzuk azpimarratzen ditu eta balio horien inguruan kontzentzua sortzen denean lortzen da ordena.
- *Interesa*: ordena interesen bat etortzearen edo interesen arteko lehiaren emaitza da
 - Proudhon
 - Sozialismo utopikoa
 - Kropotkin
 - Printze anarkista
 - Adam Smith
 - Merkatuan ematen diren interes ezberdinen lehiaren bidez aberastasuna eta onura sortzen da

Horrela, gizarte ordenaren finkapenarekiko, gaur egun aipatutako hiru baliabideen bidez egiten dela esan genezake; hots, bortxa, kontzentzua eta interesaren bidez.

2.3. SISTEMA POLITIKOAREN AUTONOMIA ERLATIBOA:

Politikaren autonomia erlatiboa:

Autonomia \neq independentzia

Politika independentea ez den arren, badu autonomia maila bat zeinak bere funtzioa bete eta orden soziala ezartzea ahalbidetzen dion. Autonomia hori ezberdina da aro historikoaren arabera.

Horrela, hausnartu beharra:

Zein autonomia maila du politikak? Erlatiboa \rightarrow garai historikoaren arabera

Laburbilduz esan genezake politika ez dela independentea ezta mendekoa ere; autonomia maila bat duela. Autonomia hori erlatiboa da garai historikoaren arabera: handiagoa edo txikiagoa izan daiteke.

Adibideak:

- Gaur egun politikaren autonomia maila oso baxua da ekonomiak erabakitze esparru handiak kendu dizkiolako (eragile ekonomiko pribatu handiek).
- Duela 50 urte inguru, botere politikoak askozaz autonomia altuagoa zuen. Ongizate estatua europar iparraldean garatu zen eta bertako herrialdeetan barne produktu gordinaren %65a kontrolatzen zuen estatuak. Enpresa publiko, banku publiko, administrazio publiko eta gainontzeko egitura publikoetan produzitzen den BPGren %65a, alegia.

Politikaren autonomia ematen dioten **fenomenoak**:

- Ordezkaritza: ordezkaritza egiturek interes politikoak sortzen dituzte. Ordezkaritza alderdi politikoek egiten duten erreklamamendu politikotik sortzen dira.
- Erakundetzea:
- Profesionalizatzea:

a) Politikaren profesionalizazioa

b) Klase politikoa

- c) Erreklutamendua
- d) Ordezkaritza politikoa

ESKEMA BERRIA!

3. GIZARTE ZIBILA:



3.1. KONTZEPTUA

Eskaerak eta sostenguak burutzen dituenen → Gizarte zibilak eskaerak egiten dizkio sistema politikoari prozesu politikoen bidez: manifestazioak, eragileak, ideologiak, taldeak, estrategiak eta abar.

Adibidez:

- Kataluniako Asamblean Nacional Catalana eta Omnium
- Estatu batuetan errifleanen elkarteak du afiliatu kopuru handiena

3.2. ETORRI EZBERDINEKO EGUNGO EKARPENAK

N. Bobbio

Italiar filosofo eta politologoa izan zen. Sozialismo liberalaren sortzaileetako bat.

Honen arabera, Gizarte Zibilak 3 ezaugarri:

- a) Gatazken alorra da, Estatuak konponbidea eman behar diena.
- b) Eskakerak sortzen direneko esparrua da, eta sistemak erantzuna eman behar die.
- c) Indar sozialen antolaketarako eta mobilizaziorako eremua da.

Ikuspegi liberala

Gizarte zibila \neq estatua \rightarrow hau da, gizarte zibila ez da estatuaren parte. Horrela, definizio ezkorra da: publikoa ez dena gizarte zibila da.

Horrenbestez, gizarte zibila pribatizatzearen esparrua da: familia, merkatua eta abar.

Ikuspegi honen arabera, beraz, gizarte zibila esparru despolitizatu bat da.

Gramsci

Italiar politikari eta pentsalaria izan zen. Alderdi Sozialistako kide izan zen harik eta alderdi horren banaketa eman eta Alderdi Komunista sortu zen arte (bera izan zen sortzaileetako bat).


Ikuspegi **marxista heterodoxoa** dauka

Que está en desacuerdo con los principios de una doctrina o que no sigue las normas o prácticas tradicionales, generalizadas y aceptadas por la mayoría como las más adecuadas en un determinado ámbito.

Honen esanetan gizarte zibila = sistema legitimatzeko parte hartzen duten eragileek osatzen dute.


Banatu egiten ditu:

- Gainegitura politikoa: erakunde politiko osatutakoa, bortxaren erabilera.
- Gainegituraren bigarren unea: hegemoniaren funtzioa eta egoeraren legitimazioa burutuko duten harreman ideologiko kulturalen esparrua. Honen helburua diskurtso hegemoniko bat sortzea izango da: ezkontza, ikastolak, hedabideak, ideologia garapenak ...




Gainegituran bi gune bereizten ditu:

Esparru instituzionala / Legitimazioaren esparrua
Estatua / Hegemonia



Ikuspegi hori ezberdina da **marxismo ortodoxo**arenarekiko:



Esan genezake ikuspegi honen arabera gizarte zibila azpiegituren kokatzen dela; hots, egitura ekonomiko-sozialaren baitan.

4. GIZARTE BOTEREA ETA BOTERE POLITIKOA:

4.1. BOTERE HARREMANAK ETA GIZARTE ELKARREKINTZA

a) Boterearen definizioa

Norbaitengandik bilatutako portaera lortzeko ahalmena

Esan genezake besteen gaineko autoritatea dela boterea; hots, besteen jokabidea eraldatzeko edo harengan eragiteko gaitasuna. Talde orotan partaideen indarren arteko konfluentzia gertatzen dela onartuz gero, esan genezake menderatze edo botere erlazioak agertzen direla.

b) Tipologiak

o Ageriko boterea VS Ahalezko boterea

o Aginte boterea VS Eragin boterea

Botere motak	Erak	Zigorak / Sariak	Helburuen bermea
Aginte boterea	<ul style="list-style-type: none"> - Arau juridikoak - Agindu morala - Agindu fakturala 	Zigor sistema	Indarkeria (materiala, psikikoa, soziala)

Eragin boterea	<ul style="list-style-type: none"> - Gogatzea - Maneiua - Aginpidea 	Sari ematea (materiala, sinbolikoa, informazioa)	Ez dago indarkeriarik
----------------	--	---	-----------------------

c) **Boterearen gizarte antolaketa**

4.2. BOTERE POLITIKOAREN EZAUGARRIAK

Definizioak eta osagaiak

- Indarkeria legitimoaren erabilpena, erabakien beharkizunerako bermatzaile (Weber, Almond ...)
- Botere legitimoa botere faktualaren kontrakoa da (Weber)

Botere politikoaren ezaugarriak (Bobbio)

- Esklusibotasuna: indarkeriaren monopolioa du
- Unibertsaltasuna: hartutako erabakiak komunitate osoarentzat dira
- Inklusibotasuna: botereak ezarritako helburuen lorpenera bideratutako jarduerak derrigorrezkotzat jo ahal izatea. Gizartearen antolaketan datza.

Botere politikoaren berriazkotasuna (izaera propioa ematen diotenak):

a) **Desoreka eta gatazka: beharkizun sozialaren sorburuak**

- BARNE gatazka:
 - Errekurtsoen banaketaren gaineko kontrola
 - Indarkeriaren errekurtsoa
 - Errekurtso ekologikoa
 - Errekurtso kulturala
 - Sexu indarkeria
 - Gobernatu eta gobernarien arteko harremana

- KANPO gatazka: kanpo mehatxuak eragindakoa

b) Beharkizuna eta legitimitatearen arteko aliantza:

Indarkeriaren kontrola eta gutxieneko legitimazio maila baten mobilizazioa.

Gaur egun:

- Estatua eta zuzenbidea
- Gizarte baten onartutako edo onarrarazitako sinesmenekiko harremana
- Atxikimendua eskuratu

c) Botere politikoaren eraginkortasuna:

- o Sistema politikoa; erabakiak hartzeko prozesua
- o Banaketa, bereizketa

Funtzio politikoaren espezializazio prozesuaren ondorio

- Legislazioa: arauak sortu
- Administrazioa: arauak betearazi
- Jurisdikzioa: sortutako arau horiek betetzean sor daitezkeen gatazkak konpondu
- Segurtasuna

- o Erakundetzea

Funtzio horiek bete ahal izateko bitarteko fisiko-materialak. Estatu modernoan:

- Legislazioa: parlamentua
- Administrazioa: gobernu edo administrazio publikoa
- Jurisdikzioa: epaitegia
- Segurtasuna: armada

- o Erabaki **gunearen** eraikuntza

Subiranotasunaren gune konkretu batean kokatzen da prozesu hori. Gune konkretu hori zentro politiko bat ezartzearena da. Horrekin prozesua amaitzen da.

Gaien politiziorako urratsak, botere politikoaren agerpena:

- 1) Gatazka gai baten inguruan eragileak mobilizatzen hasten dira:

- a. Kaltegarritzat jotzen den balio edo errekurtsoen banaketa desorekatu bat identifikatzen da
 - b. Arazoaren gaineko kontzientzia hedatzen da inplikaturako eragileengan; horiek proposamenak eta eskaerak egingo dituzte
 - c. Proposamenak eta eskaerak lortzen aldera, eragileek errekurtsuak erabiltzen dituzte (ezagutza, informazioa, dirua, antolaketak, armak eta abar)
 - d. Gatazka eszenatoki publikora eramaten da komunitate osorako erabaki lotesleak hartzeko eskaera eginez. Erabaki hauek indarrena jarriko direnaren eta obedituko direnaren bermea indarkeria instituzionala da.
- 2) Eragileren batek edo zenbaitek gai bat politizatu ez dadin ahalmena izaten dute, agenda politikoa kontrolatzen baitute. Gaia erabaki lotesleetatik kanpo mantentzen dute hala.
- 3) Eragileren batek gai bat problematikotzat ez jotzea lortzen du, gainontzekoen pentsaeretan eraginez.

5. MENERAPENA ETA LEGITIMAZIOA:

5.1. MENERAPENA ETA BERE EGITURAK

Estatuaren menaperena: guda da estatuaren menaperena. Estatu eratzailen lehen-leheniko guda bere hiritarrei zuzendutakoa baita, zeinetan bere hiritarren menaperena lortzen duen guda-politikaz.

- a) **Bitartekaritzaren egitura**
- b) **Ekoizpen moduak:**
 - o **Ondasun materialak eta zerbitzuak**
 - o **Legitimitatea**
 - o **Bortxa**

Botereak elkarrekintza gisara dituen mugak

Arauek eta egiturek menaperenean duten eragina

Maila	Alorra	Baldintza	Kontzeptua
Agerikoa	Elkarrekintza, harremana	Errekurtsuoen ebaluazioa (informazioaren jokoak)	Boterea a)
Ertaina	Arrazionaltasun erak	- Ohiturak - Araudiak	Arauek b)

Oinarrizkoa	Ekoizpen moduak <ul style="list-style-type: none"> - Ondasun materialak - Ondasun sinbolikoak (ideologiak kasu) - Indarkeria 	Botere errekurtsoen banaketa desorekatua	Menerapena, sistema c)
-------------	---	--	------------------------

- a) Boterea: Katalunian informazio joko bat erabili zuten
- b) Arauek diote zer egin daitekeen edo zer ezin daitekeen egin. Botere harremanean erabili daitekeena mugatuko duena. Posible dena definitzen da.
- c) Menerapena, dominazioa: botere harreman horietan erabiltzen ditugun bitartekoak nondik sortzen diren. Bitarteko horiek egitura batzuetatik sortzen dira.

Menerapen eta arauen arteko erlazioa:

Menerapena Arauak

Koxka: Mokoroak zalantzan jartzen du hiru hauen bereizketa, hein batean araua menerapenaren baitan dagoelako: **zuzenbidea** lez.

- Nire galdera: *arauak, era berean, ez al dute menerapena baldintzatzen?*

Baietz esan genezake, Menerapena ← → Arauak.

Arauak menerapen egituretan sortzen dira (indarkeria egituretan, egitura politikoetan)

Era berean, arau sistemek menerapena baldintzatzen dute: adibidez, hauteskunde sistema arau bat da zeinak menerapena (botere errekurtsoen banaketa) baldintzatuko duen.

- Laburbilduz

Badira gizartean oinarrizko egitura batzuk zeinetan errekurtsuak sortzen diren, gero botere harremanetara bideratzeko. Igarotzeko, arauen filtroa igaro behar.

5.2. LEGALITATEA, LEGITIMITATEA, LEGITIMAZIOA

- LEGALITATEA: Eragile politikoaren jarduerari dagokion kontzeptua (botere harremanari dagokiona). Legearen (arauak) mugen barruan ari izatea.

- Isonomia: grezia klasikoan, legearen aurreko berdintasuna
- Rules of law: anglizismoa, legearen agintea
- Zuzenbide estatua: tradizio alemanetik datorrena

Bereizi

- Berezko boterea
 - Botere arbitrarioa
- LEGITIMITATEA: (arauen barruan jarraitzen dugu). Boterearen titularitateari dagokion kontzeptua (zein da boterearen titularra?). Botere legitimoa legalitatearen arabera ezarritakoa da.

Adibidez, Iñigo Urkullu lehendakartzaren titularra da eta legitimoa da legalitatearen (ezarritako legeen arabera) baitan hautatua izan zelako. Felipe VI legitimoa da? Bai, konstituzioak erregearen hautaketarako zehaztutako bidearen arabera izendatua izan baita.

- Botere legitimoa: Urkullu
 - Botere faktuala: legitimoaren aurkakoa, estatu kolpeen ondoriozkoa, adibidez
- LEGITIMAZIOA: Prozesua da. Onarpen sozialari dagokio. Borroka ideologiko-kulturala.
- Felipe VIak legitimaziorik du? Madriden hemen baino gehiago.

Mailak:

- Komunitate politikoa: Katalunia \neq Espainia
- Erregimen politikoa: 15M nos representan no nos representan
- Gobernua: gobernuaren erabakiekiko
- Kanpo hegemonia: Irakeko gobernuari egiten diote kritikarik potenteena AEBn mendeko izatea da.

Legitimitatea botere politikoaren ifrentzua:

Legitimitateak ideien eta balioen munduarekin lotzen du boterea. Hots, baliabide kulturaletan oinarritzen da legitimitatea.

5.3. EREDU WEBERIARRA

Weberren esanetan ideologia iritzi publikotik abiatzen da; hots, arazo bakoitzarentzat zein iritzi publiko dagoen adierazten du ideologiak. Horrenbestez, ez dute diskurtso osorik eta aldatzen ari dira etengabe.

Weberren ustetan legitimitateak lau iturri ditu:

- 1) Tradizioa: ohiturak eta abar.
- 2) Arrazionalitatea: bilatzen diren helburuen eta erabiltzen diren baliabideen arteko egokitzea. Bat etortze hori arau eta erakundetan bilakatzen da legalitate. Hots, estatua eta zuzenbidea (legitimitatea zuzenbide estatuaren ideietan oinarritzen da).
- 3) Karisma: pertsona batek beste batzuegan maila psikologiko batean erakarpina sortzeko duen ahalmena, pertsona bat lidergora hurreratzeko balio duena.
- 4) Etekin / Eraginkortasuna: Sistema politikoaren efektibitatea.

5.4. LEGITIMAZIO PROZESUAK ETA KRISIALDIAK